

# Jon Zabaleta

## «Irudimena pizten zaizu zure beharra dagoela sentitzen duzunean»

Oso une bereziak bizitzea egokitu zaio Jon Zabaletari; halaxe aitortzen du hark, eta momentu horietako bakoitza bere marrazkietan islatzen ahalegindu zen. Baina hura amaitu zen, eta, orain, bizitzako beste atal bati ekin dio, betiere uneoro afizio eta ofizio izan duen ilustraziogintza baztertu gabe.

### Arantxa Elizegi

Ibiltzen ikasten ari den haur baten antzera, bere biderei ekin dio Jon Zabaletak ere (Hernani, 1950). Hasieran motel, gero azkarrago, kostata, baina aurkitu du bere tokiak. Ilustraziogintza erabat baztertu gabe—«mahi baino gutxiago deitzen didate», dio irribarrez—, eskolak ematen dabil, marrazkiak egiten dituen bitartean haurren aurpegiak ikusteak ematen baitio aurrera egiteko indarra.

### Gogoratzen duzu zure ibilbideko lehen ilustrazio hura?

**E** Bai, gogoan dut. Oharkabeen ikusi nuen neure burua Gordaillu argitaletxea ilustratzen. Orduan, Debako Arte Eskolan nembilen, eta [Jorge] Oteizak esperientzia berri bat bultzatu zuen, Xabier Mendiguren eta Debako alkatea bera ere tartean zirela, euskararen inguruko liburuak egiteko, eta, horretarako, ilustratzaileak behar zituzten. Gu, une hartan, ilustraziogintza aztertzen genbiltzan, munduan nola egiten ziren eta abar; beraz, bazegoen halako sentibilizazio bat. Gogoan dut marrazkian neska bat eta mutil bat agertzen zirela lore batera igotzen. Oso polita da liburu hori. Zoragarria izan zen, aukera eman zidalako gaztetan liburutegietan ikusitako hainbat ilustratzaile euskaldunen lanak gogora ekartzeko, besteak beste, Jon Zabalo Txiki-renak. Liburu horiek bazuten zerbaite. Zu gazte zarela joaten zara liburutegira eta agian gustuko izango duzu Alemaniar edo beste herrialde bati buruzko istorioak irakurtzea, baina liburutegiko txoko batean aurkitzen dituzunean euskal kutsuko liburuak, zerbaitek erakartzen zaitu. 60ko

hamarkada zen, eta liburu haiek islatzen zuten guk uneraren batean sentitu genuena. Baserriko eta kaleko irudiak ziren; jendea txapelarekin ageri zen, baina marrazkien atzean ezkutuko zerbaite nabari zen, denbora askoan baztertua egon zena. Beraz, aukera hori heldu zitzaidanean, euskal mundurako ez ezik, mundu modernoago baterako sarbidea ere ikusi nion. Joxean Muñozek nire erakusketa batean esan zuen moduan, hitzaren industria aurrera aterako bazen, irudiarekin aterako zen. Eta niretzat irudiarena oso mundu zabala zen, oso irekia.

### Eta, agian, baita oso gutxi landutako ere.

**E** Bai ba. Gu ginen lehenak. Aurretik gerra denborakoak zeuden, baina horiek gerra bukatutakoan hil ziren. Eta gu berpiztearekin batera heldu ginen, orduan hasi

«Egin'-ekoa esperientzia berri bat izan zen. Askatasun handiko garaiak ziren»

«Eldarnio batean bizi izan nintzen urte askoan, horrek nire sormenari laguntzen zion»

ziren liburu batzuk ateratzen eta beste batzuk berrargitaratzen, *Xabierto*, adibidez. Ez zitzaidan burutik pasa ere egin norbaiti gustatuko ez zitzaionik, iruditzen zitzaidan mundu guztea zela.

### G Orduan erabaki zenuen ilustraziotik bizitzea?

**E** Ez, hori beranduago etorri zen. Nik, momentu hartan, aukera asko ikusten nituen, kartelak, diskoen azalak eta abar. Horiek guztiek ematen zizuten aukera une hartan herriak bizi zuena adierazteko. Barruan halako su bat zenuen, adierazteko beharra sentiarazten zizuna. Gero prentsa ere ateratu zen. Hura ere pentsaezina zen... euskarazko prentsa! Oso une bereziak, arriskutsuak bizi izan genituen. Nik zorfea izan nuen. Egia da bai egin ditudan gauza guztiak ez direla atera, eta ia ez direla aterako, baina beti ez da betetzen nahi dugun guztia.

### G Egunkarietan ere lan egin zenuen.

**E** Bai. Nire bizitzako une batean beste aldera joateko aukera izan nuen, eta, han nintzela, ezkutuko komiki bat egin nuen, eta asko gustatu zuen. Ezizenarekin sinatzen nuen, eta *Hitz* aldizkariarekin batera banatzen zen. Donostiara itzuli nintzenerako, nire atzetik zebiltzan *Berriak* aldizkariak. Eta askorik pentsatu gabe eman nien baiezkoa: gainera, ordurako marrazkiak eginak nituen. *Berriak* urtebetera-edo desagertu zen, eta handik hilabete batzuetara jaio zen *Egin* egunkaria. Hura esperientzia berri bat izan zen. Pentsa egunero egin behar nuela zinta bat, eta askotan pertsonaiak ere unean bertan asmatzen nituen. Askatasun handiko garaiak izan ziren. Baina, 80ko hamarkadaren hasieran, gogortu egin zen egoera; estatutua ateratu zen, baita instituzioak sartu ere, eta ezker abertzaleak ez zuen han sartu nahi izan, eta talka gertatu zen. Orduan, ezker abertzaleak ja-

### Motzean

- 1 Marrazkilaritza.** Hizkuntza bat da, hitz moduan, baina beste kode batzuekin.
- 2 Erreferenteak.** Txikitan ikusitako komikiak eta gaztetako liburuak ilustraziok. Eta, aurrerago, zenbait profesional; bat aipatzekoan, niretzat oso garrantzitsua izan dena aipatuko nuke, Jon Zabalo *Txiki*. Gero, askotan esan didate haren jarraitzailea naizela. Gogoan dut amonak bazuela katekesirako liburu bat haren marrazkiekin, eta azalean agertzen ziren mutiko bat eta neskato bat menditontor batean herrira begira. Niri marrazki hura izugarri gustatu zitzaidan.
- 3 Gustura ilustratuko zenukeen lan bat.** Klasikoak. Orain klasiko bilakatu naiz, lehen ez bezala. Azkena egin dudana ere klasikoa da.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Garaitu hartan hasi ziren inprentetan kolorea sartzen, eta oso txukun geratzen zen. Hori izan zen hasiera. Baina, handik gutxi-anaia bat galdu nuen moto stripuz, eta garai txarra bizi izan nuen; kosta egiten zitzaidan nire lanean sartzea. Gauzak aldatzen hasi ziren, eta baserrira joatea erabaki nuen, Lesakara, lagun batekin. Eldarnio batean bizi izan nintzen urte askoan, eta eromen hark nire sormenari laguntzen ziren. Lehen urtebete hartan oso goian egon nintzen. Aurreko batean, *Egin*-en ateratakoa begiratzeari nintzen, marrazki onak ziren... Egun batean bat egiten nuen, bestean beste gauza bat... baina guztiak oinarri bera zuten, herria.

### G Halakoetan norberaren egoerak ere eragiten die marrazkiei?


**E** Eta aldamenen duzun pertsona ere asko eragiten du. Hala ere, gazte zarenean desberdina da. Orduan ere seguru nire barruan oso gaizki pasatzen ari nintzela, drama bat neramala, baina gaztea nintzen eta egunkariak ematen zidan leiho hori aukera bat zen, banekielako hortik kanpora jendea zoragarria egongo zela. Egunkariaren bitartez bidaltzen nituen mezuak ziren, eta, inoiz norbaitek zerbaite esanez gero, lagun

rrera gogortu zuen, eta bakoitzak bere alderdia aukeratu zuen, baina ni ez nintzen inongoa sentitzen, eta *Egin*-etik ateratzea erabaki nuen. Alderdi horretan beti izan naiz oso berezia, ez dut esan nahi besteak baino hobea naizenik, baina ez nuen ulertzen gertatzen ari zena, eta, ondorioz, periferian, bazterrean geratu nintzen. Baina han ere gauza asko zeuden egiteko.

Orduan hasi nintzen ipuinekin. Lehenak Ereinenak izan ziren, 80. urte inguruan. Oso ipuin txukunak ziren, inpresio eta maketa aldetik ere dotoreak. Garai bertsuko da *Ipurbeltz* ere. Orduan ohar-tu nintzen egunkarietatik kanpo bazela beste mundu bat.

### G Denetara ehun bat ipuin liburu ilustratu omen dituzu.

**E** Bai, uste dut lehen [Bernardo] Atxagaren bat izan zela. *Antonino Apretaren istorioa*. Andu Lertxundirekin ere egin nuen lan.



berriak egin nituela iruditzen zizaidan.

Denborarekin, ordea, konturatu nintzen lehengo mundu hura ez zela etorriko. Ez behintzat eza gutzen nuen moduan, jendea beldurtzen hasia baitzen; ni ere gerta zitekeenaren beldur nintzen. Pentsa une batean, baserrian nengoe-la, ordura arteko lana erre nuela. Ordurako hiru urte baziren hara joan ginela, baina, hala ere, bitan etorri ziren guardia zibilak; batean, zertan genbiltzan galdetzerara, eta, bigarrenetan, etxean sartu ziren gu han ez ginela. Bestalde, babesgabe sentitzen nintzen, zure kontura zabiltzanean inor ez baita zure alde ateratzen.

**G** **Eta ipuinak iritsiziren.**

**E** Bai, Elkarren eta Ereinen hasi nintzen. Behar nuen denbora guztia hartzen nuen marrazkiak egiteko; horregatik, ilustrazio haiek detaile asko dituzte. Dena den, garai hura baino lehen egin nuen antzeko lanik. *Txan fantasma*, esaterako, lehenagokoa da, 84koa. Handik gutxira hil zen anaia, liburuarena abuztuan izan zen, eta anaia urtebetetara joan zen.

Oso gustura egin nituen hasierako ipuin haiek. Gainera, orduan —eta oraindik ere bai—, ipuin bat nuen aldiro nire txokoa sartzen nintzen eta ez nintzen handik atera-

ratzen lana bukatzen nuen arte. Ez da lan erraza, ezerezetik sortu behar baitituzu marrazkiak, pertsonaiak... tira, ezerezetik ez, testua beti hor dago, marrazkiak baze on bat behar baitu. Gero, semea jaio zen, eta bera bilakatu zen nire ipuinetako pertsonaia zentrala [kar-kar].

**«Ipuin bat ilustratzea ez da erraza, ezerezetik sortu behar baitituzu irudiak»**

**«Marrazkilariak eta gidoilariak babesik gabe egon dira. Inork ez du haien aldeko apusturik egin»**

**G** **Tarte horretan agertu zen *Ipurbeltz* ere.**

**E** Bai, beti gustatu izan zaizkit komikiak. Orain telebista eta bideo jokoak dauden moduan, garai hartan ez zegoen halakorik, eta komikiak irakurtzen genituen. Igandetan beti prest egoten ginen komikiren bat erosteko,

bai *TBO*-a edo besteren bat. El-tzeitsutik dirua atera, eta han joaten ginen korrika. Eta gerora konturatzen zara egiten dituzun irudietako askok komiki haietan dutela oinarria. *Ipurbeltz*-erako ere lehenengo marrazkiak egiten nituen eta gero hitzak jartzen saiatzen nintzen. Baina ez zen baterre erraza.

**G** **Komikigintzaren, haur literaturaren eta egunkarietako zintzen artean aukeratu beharko bazenu?**

**E** Bakoitzak izan du bere garaia. Egunkari batean lan egiteko, ausarta izan behar duzu, jende askok ikusten duelako eta, gainera, gaurkotasuneko gauzak landu behar dituzulako. Ni, gainera, ez naiz lan errazaren zalea, eta egunkarirako aritzen nintzanean marrazki mutuak egiten nituen, asko jota hitzen bat edo besterekin. *Egin*-ekoa berezia zen, niretzat haren atzean herria zegoelako. *Euskaldunon Egunkaria* desberdina zen, beste sentimendu batzuk zeuden; belaunaldi gazteagoa zen, berriz, proiektu haren atzean zegoena. Alde batetik, ondo zetorkidan lan hura, dirua behar nuelako, baina, bestetik, zenbait giro ezagutzeko balio izan zidan. Baina une honetan oso zail ikusten dut halakorik egitea. Al-diz, ipuinetan erosoago sentitzen

naiz. Komikigintzan, berriz, *Ipurbeltz*-en ondo nengoen, banituen nire pertsonaiak, nire istorioak; aldiz, oraingo berri hauetan jende gaztea dago, eta berrikuntza asko.

**G** **Estiloak ere asko aldatu dira.**

**E** Bai, eta ez dut neure burua estiloa aldatzera derrigortu nahi. Gainera, uste dut esan behar nuen esan dudala. Orain, klaseak ematen ditut; ez dira asko, horixe da pena, baina behintzat gozatu egiten dut. Hor, gainera, marraztu egiten duzu, baina, aldi berean, haurraren aurpegia ikusten duzu eta beste harreman bat sortzen da; zure beharra dutela sentitzen duzu. Hori oso garrantzitsua da. Toki batean zure beharra ez dagoela sentitzen duzunean, ezer egiteko gogorik gabe geratzen zara, eta irudimena pizten zaizu zure beharra dagoela sentitzen duzunean. Dena den, jarraitzen dut ipuinak egiten. Duela gutxi amaitu dut bat, Itziar Zubizarretarena, *Errege zorria*.

**G** **Uste duzu ilustraziogintza gutxietsi egin dela?**

**E** Bai, dudarik gabe. Etxean bertan ikusten nuen hori. Hasieran, gustura ikusten zituzten komikiak, baina, denborarekin, bideo jokoak iritsi ziren, eta komikiak bazterrean geratu ziren. Bestetik, oraingo haurrek gauza asko di-

tuzte egiteko, hasi eskolaz lanetatik eta eskolaz kanpoko ikastaroretaraino. Horretaz gain, marrazki bizidun japoniarrek ere garrantzi handia hartu dute, euren heroiak ere han daude. Askotan, ematen dizkiezu Europako eta Ameriketako komikiak eta harrituta geratzen dira, ez dituzte eza-gutzen.

Egia da garai batean komikiak bazuela lotura bat Francoren aurkako borrokarekin. Baina, gero, trantsizioaren ostean, ahulduz joan zen. Egun hemengo komikiaren kulturak ez du zerikusirik Frantzian edo Europako beste zenbait tokitan dagoenarekin. Hemen ez da egon dirua jarriko zuten produktore bat eta gidoi on bat; hori egon izan balitz, gauzak oso bestelakoak izango liriateke. Marrazkilariak eta gidoilariak babesik gabe egon dira. Inork ez du haien aldeko apusturik egin. Horregatik, herriaren babesa izan genuen bitartean, denak primeran funtzionatu zuten.

**G** **Proiektu baten eta bestearen artean, Manuel agertu zen.**

**E** Hura proiektu pertsonala izan zen; 2005ean jarri nuen *Manuel eta memoria* erakusketa. Semea jaio zenean, nire amonarengana joan ginenean, eta hark esan zidan: «Badakizu jaio zinez Juan Manuel jarri nahi izan nitzula? Baina zure aitonak ezetz esan zuen, Juanito-rekin nahikoa zela». Gerora jakin nuen aitonak izan zuela seme bat Juan Manuel izena zuena. Hark gerrara joan behar izan zuen, eta behin etxera bueltan zela istiluak izan zituen Hernanin beste batekin. Horren ondorioz, Juan Manuel hori iker-tzen hasi ziren, eta lagun batek ohartarazi zion Poliziak hari buruzko informeak zituela eta ez zirela batere onak. Hala, erabaki zuten beste aldera joatea, eta han errepublikaren aldekoekin elkartu zen, eta haiek inoan joan zen Barzelonara ere. Baina, gerra ama-itutakoan, handik ihes egin eta beste aldera joan zen bigarrenetara, eta han kontzentrazio eremu batean sartu zuten beste askorekin batera. Gero, denborarekin, askatu egin zuten, eta morroi moduan aritu zen lanean baserrietan. Izeba baten bidez jakin nuen osaba Manuel kontrabandoan ibiltzen zela, baita Comet sarean ere, mugalarri. Baina, halako batean, alemanek harrapatu zituzten, eta kontzentrazio esparru batean sartu zuten, Flossenburgen, [Alemania] hil zen arte.

Ni tematuta nengoen Manuelen istorioa argitaratu ateratzen banuen nire barruan nuen korapi-lua askatuko nuela. Eta baita lortu ere; gainera, une hartantxe zuten ateratzeko Comet sareari buruzko liburuak, eta lortu nuen Manuel bertan aipatzea. Eta lan hori ama-itutakoan, barrua lasaitu zitzaidan, eta nire bidetari ekin nion.